

ZIRTA

Angel Erro

IDAZLEA

Pasahitzak

S

CARLETT Johansson aktorearen intimitatea hackeatu izan den honetan aitoren bat egin nahi dut. Ni ez naiz izan. Baina gaiak interesa piztu dit, ni ere hackerra naizen neurrian. Hacker amateur edo, nahia-go bada, erromantikoa, informatikaz tutik ere ez baitakit, baina bestelako metodoak, literarioagoak, garatu ditut.



JOSU SANTESTEBAN

BESTEEN pasahitza asmatzearen gakoa dirudien baino errazagoa da. Gogoan dut *Il pendolo di Foucault* eleberriko pasarte bat. Protagonistak, ikerketan aurrera jarraituko badu, hildako lankide baten ordenagailu klabe-dunean sartu behar du. Makinak behin eta berriz, temati, galdetzen dio: *Hai la parola d'ordine?* Pasahitza baduzu? Hamaika ahalegin ondoren, NO idazten du eta sartzen da.

GILEN IX.a Akitaniakoa trobadoreak olerki luze bat burutu zuen, hain zuzen ezertaz jardun gabe (*Farai un vers de dreit nien*/Ezdeus hutsari buruz bertso bat egingo dut). Azken bi lerroak misteriotsuak dira. Gilenek poema norbaiti bidaliko omen dio (ez du nori esaten), honek giltza bat, *la contraclau*, hitzez hitz, kontragiltza bat, bidaltzearen truke. Giltza horrek zer irekitzen du? Poema bera? Poemara sartu eta ulertzeko kodea da? Trobadore bati zegokionez, poema damaren bihotza lehenago, eta gero geroako, zabaltzeko gakoa da?

JUAN Bonilla, eleberririk eta ipuingile moduan ezagunagoa baina merituzko poeta ere badena, guztiz biluztu da, lehenago inongo poeta ez bezala, *Cháchara* bere azken poema liburuan. Estreinako poeman, NANaren zenbakiaz gain, bere telefonoaren pin zenbakia ematen du, visa eta mastercardena ere bai, hala nola bere e-mailaren pasahitza, besteak beste.

BURLATAKO Liburutegiko ordenagailuan postari begiratu azkar bat eman nahi genion arre-bak eta biok, aspaldian. Berak tokia utzi zidanean, nire e-maila irekia topatu nuen. Arrebak bazter batetik irribarre egin zidan. Nire pasahitza asmatua zuen. Haserre baino, goitik behera lotsagorritu nintzen. Garai horretan torturapean ere inori aitortuko ez niokeen zerbait nuen passwordtzat: SOYGAY. Orain dagoeneko ez zait hainbeste ardura baten batek baldin badaki zera, neure buruarekin gaztelan aritzen naizela.

DAGOENeko konpondu didaten arazo informatiko baten erruz astebete egon naiz nire e-mailan sartu ezinik. Bizi izan dudana infernuaren nolakoa saihestuko dizuet. Aldiro saiatzen nintzen barrura egiten eta kale. Giza arima misterio-tsua da. Nire hutsa berdintzeko edo, ezagutzen dudana jendearen e-mailan saiatu naiz sartzen, beraien pasahitzak asmatzen. Bigarren arratsean, ez dakit zenbatgarren saioan, lagun gutxi gorabehera gertuko batenean sartzea lortu dut. Gu bion adimen kriptatzaileek antzera darabiltela ikustek poztu nau, gertuagoko sentiarazi dit.

LEIZERIK intimoena irekitzen ikusteak zirrara sortu dit, harenganako ahalmen, ezagutza eta ia samurtasun sentsazioaz; zureganako, orain baitakit irakurtzen nauzula. Gela batetik bestera bezala, barrentzen zaitut, ausikia zuritzeko, nik uste, maitasun bilakatuz doan sentimen batekin. Zu edo ni hil artean, badakit egunero arakatuko zaitudala. Uztea pentsatu dut baina ezin; zuri aitortzea baina izu naiz. Hau idaztea baino ez zait bururatu, etsirik, pasahitza alda dezazun, horrek, orain hainbeste ezagutzen zaitudala, zerbaiterako balio balezake. Ez baduzu hala egiten nire maitemina onartzen duzulako seinale isiltzat hartuko dut, kasik zurearen erakusgarritzat. Dario Jaramillo poetak dioenez, ezinezko amodioak amodiorik zoriontsuenak dira, baliteke zure maite ezinezkoaren maite ezinezkoa zu izatea.



irudia:

Antton Olariaga

BADAEZPADA, saiatu zaitetz nire e-mail kontuan sartzen. Pasahitza zure izena da. ■

